

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA


Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENTA

Laugarren urtea. - Pamplona - Febrero 1969 - Otsaila - Iruña. 36 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

OIHANZALEAK



Eskual-herriak ba ditu bere itzalak eta, ez txikiena, lurraren estutasun eta etorki eskasa; ezin bizia. Gure mendi tontorrak etziren gari pilak. Hori dela ta, denbora guzietako eskualduna bere semeak norabeit bialtzera behartua izan da. Ez da ikusi besterik: itsas beste aldeko lur berriak sortu ba ziren da sortu eskualdunetz bete ziren ango baztarrak. Bost senidetatik bat geldituko zen etxean eta besteak Ameriketara zuten beren dotea.

Azaletik gauzak begiratzen dituztenak, herri baten indar ixurtze hori ikusi ta, eskualduna berez ezin egona, alderrai eta sosegu gutxi-ko gizona dela uste izan dute. Zer gerta, eta amets zoroen atzetik ibiltzale. Ez gintuzten ongi ezagutzen.

Herrizalerik balin ba da, eta sort-lekua maite duen gizonik munduan, eskualduna dela esango nuke nik. Erditzera dijoazen aingurak bizi legez joaten dira itsas beste aldera, eta itzultzea berekin daramate asmoan. Eskualdunak, besterik ezin duenean bere ezur-erak nahiko lituzke bialdu bere herrira. Etzaizkie joandako guziera gauzak nahi beza-

la gertatzen, eta ala ere zenbat indiano eta jauregi eder ez du gure lurrak!

Mundu zabaleko bideak nahi duenaren-dako idekiak izatea ederra da. Gizonaren askatasun osoari dagokio komeni zaion bizimodu-a aukeratzea. Baño aukeratze horren soka muturra ezin bizia eta beharra balin ba da, askatasuna lokarri gertatzen da; poesi gaiak baztarrean utzi ta, ezin bestea deituko ginuke.

Gaur gure mutilak, lehentxago artzai bezala, Frantziako mendi lanetara dijoaz. Etzen urre bidea Kalifornia'n artzaingoan beren biziko urte oberenak erretzea. Baño ez da hobe oihanetako lana. Ikusi izan ditut argi sentiarekin moto-sierra erogarrien asarrea piztu eta ilun ondoan ixiltzen. Ez da izotzik ez langarrik an ez dutenik. Eta arrisku aundia beste alde. Trunku azpian gelditu eta agetan ekartzen ere ikusia dut. Ez da sosegu txarrekoendako egiten den lanbidea.

Egia da pixka pixka gutxitzen dijoaztela oihanazaleak. Nik dakiten Burundako erri batetik duela zazpi urte, 1962'an, amazapi mutil joan ziren Frantzira. Gaur ez da aizkora artuko lukenik herrian. Lantoki berriak sortu eta, besteak ere emen geldiarazten alegindu beharko ginuke. Itzal negargarria da etxeko semeak ezin bizi ta kanpora joatea.

Agintariak konturatu dira eta herri askotan sortu dituzte lan-tokiak. Ez da nahiko Iruña aunditzea. Euskal-herriak irautea nahi ba dugu, belar motxeko langileari ere beharko dakio eskua luzatu; herriari lagundu.

Bitartean, mendira doatzi gure mutilak. Egin zaien agur beroa gogoan izango dute denbora luzean. Gurekin, berriz, betiko kezka. Euskal-herriko seme auen zorigaitza. Nork esan lezake zein aundia izango zen denbora guzietako indar banatuekin gure herria!

SAGI



LERTXOIN LERROA

Ekaizte bezpera batean, lertxoin lerro bat zoan kantari, bere bidean. Lertxoin bakoitxak, bazeukan zer erran.

Baten kantuak orrela zion: «On den zerbait ematen asten zere-nean, ona zera. Iarrai zazu on ematen, iarrai... azkenean, ortara beartua zaudela usteko dute artzaleak!»

Bigarrenak, geroxeago, au erantzun zion: «Eman duzun lenbiziko onak, ots edo soñu zerbait egin dezake, zuk ixilean emanik ere».

Lerroko gidariaren txandatzea etorri zitzaizen lertxoineri, ta lenak azkeneratzean, auxe dio poz-pezik: «Bigarrenetik gorako onak, gero ta ots edo soñu gutiago».

Ibillera zaildu zitzaizen lertxoin gaixoei. Aizea sendotu edo...: neketa zeramaten beren bidea, zerbaitekin burrukan ari balire bezala.

Burrukaren erdian, karrasi bat: «On zerbait egizu laguntzik eskatu gabe: iñork ezdu aipatuko on ori, denen onetan egiña izanik ere!».

Bazterrak beltz zauden nonbait goi artan. Gidari berritzea orai ere. Ta berria, ez zan ain bereala lenbiziko iarri.

Ontan, denen atzetik zoazin zazpi-zortzi neska-porokatuak, bat-batean asten dire: «On egiteko laguntza eska zazu; ta iende tartean marmara franko zutaz, naiz zu denen onetan ari!».

Ez nuen geiagorik aditu, urrundu ziren-ta egaztiñak. Oiuka ta arramaka iarraitu zuten, zentzugabe itz egiñaz, ohar gabean, egi ta gezur elkarrekin nahastuz. Arrazonez edo arrazoigabe, an doaz kanta ta kanta, agora eldu zaiena botaz.

Egizko onak, on dezake beti. Gezurrezkoak, ez. Onaren izenean, ona eman bear; ez gaitza; ez kalte-garraiaria. Egiz ona ta itxuraz bakarrik ona ez direla berdin, deus ez dakien Lertxoin-Kepak ere garbi ikus dezake. Zerk balio ote geiagi? Iñoren laguntzik gabe egin duzun onak? Berzeen laguntzaz baliatuz egin duzunak? Ez al ditugu, aunitz aldiz, gerok zerna bagarelakoan, gauz onak makurtu?

Onarako laguntza eskatzeaz marmaratze orrek, batek bere barrenean daraman biotz idorra agertzen du.

Baña, zenbait aferetan, elkarrekin batuta egitea egokiago den aferetan, batek on egiteko eskubidea, iñoren laguntzarik bear gabe daukela uste izatea, buru ta biotzeko arrokeri aundi bat izen leike bein edo bertze, beti ezbadā re.

IBARRONDO

ESKVALERRIKO LEJON

MARIANO IZETA YAUNA «PRINCIPE DE VIANA» ELKARTEAREN «EUSKERAREN ALDEKO SAILLA»-REN BOCAL BERRIA



Gure Diputazioeak «PRINCIPE DE VIANA» Elkartearen «Euskeraren Aldeko Saila»-ren bocala izendatu berri du Baztan'go Balle eta honen inguruko erri haien partez Elizondo'ko seme den Mariano Izeta yauna. Izeta yaunak aginte hau onhartu du eta Diputazioeari bere baietza igorri dio bere ahalegiak egingo dituela eta baita ere bere eginkizunetan betelo dituela euskeraren alde esanez.

Izeta yauna euskal «PRINCIPE DE VIANA» delako errebista hontan lan egiten dutenetan dago eta pozik denok ikusi dugu izendapen hori. Ziur gaude Naparroan euskeraren etorkizun eta gerokoarendako izendapen honek bere fruituak ekarriko dituela.

Naparroko Diputazioearen «Euskeraren Aldeko Saila»-k baditu oraingoz lau gizon denek euskeraren onerako nahikeri eta maitasuna gañezka dauzkatenak. Hauek

dira: Jorje Kortez Izal, Burua dena. Jose M. Satrustegi, J. Manuel Lasarte eta Mariano Izeta batzarkide direnak.

Ongi etorria izan dedilla «PRINCIPE DE VIANA» Elkartera gure lagun den izeta yauna, eta lan aunitz, bere beste iru lagunekin batera, egin dezala euskeraren alde. Biotzez.

BERTSOLARIK ELIZONDO'N

Aldizkari hau moldiztegitik ateratzean Elizondo'n «Bertsolari besta» izandu berri da Baztan'go lagun euskaltzale multzo batek antolatua. Antxitoneko Trinketea lau bertsolari ari izatekotan ziren: Uztapide, Xalbador, Lasarte eta Agirre. Eldu den numeruan xehetasunak emango ditugu bertsolari besta hontaz.

«IPARAGIRRE» SARIA BILBO'KO GABRIEL ARESTI YAUNAK IRABAZIA

Igaz eta lehenbiziko aldiz, Madril'go Gobernuak «Informazio y Turismo» delakoa Ministerioak eraginda «Iparagirre» Sari deitutako «Euskerazko Literaturaren Sari edo Premio Nacionala» Bilbo'ko euskal idazlari iaio den Gabriel Aresti yaunak irabazi du.

«Iparagirre» Sari edo Premio honek badu bere inportantzia, badu bere garrantzia, eta gure idazlari gazte honek merezi ditu gure zorion eta txaloak ugari.

Maipurukoetan baziren Euskaltzaindiaren partez Madril'era joana, baita ere Ministerioaren ordezkari bat, Bizkaiko Diputazioeak izendatutako bat, beste bat Gipuzkoa'ren partetik, eta gure Diputazioearen aldetik Urdian'go Erretore eta «PRINCIPE DE VIANA»-ren lankide den Jose Maria Satrustegi apez yauna. Aho batez Gabriel Aresti yaunak izkribitutako «HARRI ETA HERRI» izenezko den liburuari eman zioten Saria.

Aresti jaunak bi kasetako liburuak ditu idatzitako: Poesiazkoak eta Teatrozkoak. Poesiazko liburuetan hauek dira ezagunenak: «MALDAN BEHERA», «EUSKAL HARRIA», eta orain «IPARAGIRRE» Saria irabazi berri duen «HARRI ETA HERRI» izenez dena.

Teatrozkoetan: «ETXE ABERATSEKO SEME GALDUA ETA MARIA MALENAREN SEME SANTUA», «MUGALDEKO HERRIAN EGINIKAKO TOBERAK», eta «BESTE MUNDUKOAK ETA ZORO BAT» izena dutenak.

Gure ziñezko eta benetako goresmenak bilbotar Aresti jaunari.

«ESCRITORES EUSKERICOS» IZENEZKO LIBURU BERRIA

Euskaltzaindiaren sekretario den Yon San Martin yaunak beste liburu bat argitaratu berri du «ESCRITORES EUSKERICOS» deitzen dena.

Eibartar honek idatzitako liburu hau Bilboko «LA ENCICLOPEDIA VASCA» Editorialak atera du. Liburu honen gaia da: ogeigarren mende hontako euskal idazlarien izendegia (Lerrokada, Kataloogia) eta euskal idazlari bakoitzaren izendegia azpian bere bizi labur edo Biografia dardar.

Lan aunitz egin izandu du gure lagun den San Martin yaunak ainbeste izen, deitura, berri, xehetasun eta beste asko kasetako gauzak paregabeko liburu hontantxe biltzeko.

Liburu hau Euskalerriko Liburu dendarik oberenetan salgai dago. Merez du erostea. Badakite gure irakurleek.

EUSKALERRIKO TXISTULARIEN ZUZENDARITZA NAPARRO'RA

Aurten oitura denez, Euskalerriko Txistularien Elkartasunaren Zuzendaritza Naparrora pasatu da bi urterako. Iruñean izango du bere bizitokia Elkartasun maite honek.

Gure irakurleek ikasi dezaten Elkartasun honen zenbait berri jarriko ditugu:

Txistularien Elkarteak Euskalerriko Iri Nagusietan dauka bere bizitokia bata bestearen ondoan bi urtez bi urte pasaturik. Azken bi urte hoketan Bitorian (Gazteiz'en euskeraz) bere egoitza egon da eta bi urterako tokatu zaio Iruñera etortzea. Emendik bi urtera Donostira jua beharko du eta andik Bilbora pasatuko da berriro Bilbotik Gazteizera pasatzera jirabira osoa berririo emateko.

Izan ongi etorria Naparrora ain maite dugun «Euskalerriko Txistularien Elkartasunaren» Zuzendaritza.

EUSKAL KANTARIAK UNIBERSIDADETAN



Bilbo'ko eta Iruñe'ko Unibersidadeetan Benito Lertxundik, Mikel Laboak eta Julian Lekuonak euskal kantari direnak egonak dira kantatzen eunaka ikasle aurrean zeudelarik.

Zaragoza'ko Unibersidadean beste euskal kantari multzo bat egona da: Vittor Egorrola, Lourdes Iruñe eta Xabier Lete ziren Zaragoza'ra jua zirenak. Exitu aundikin eta giro beroekin Zaragoza'n ikasten dauden euskal ikasleek entzun dituzten hauek kantatu zituzten kantu guziak.

Bada euskal ikasle arteko zaletasuna gaurko eguneko euskal kantuek!

«IKUSLE»



EUSKALTZAINDIA

Pamplona, 4 diciembre 1968

Las entidades asistentes al acto de las bodas de oro de la Academia de la Lengua Vasca acordaron:

Constituir un «Secretario para información, Documentación y Coordinación sobre los problemas de las lenguas vernáculas».

Este Secretario tendrá un carácter fundamentalmente técnico. Funcionará al servicio de las Instituciones reunidas. Estará al frente del Secretariado, un Director designado por las entidades mencionadas por plazos de tiempo limitados. La primera designación recae sobre el Sr. Frederic Roda a quien se encarga de realizar las gestiones necesarias para la instalación en Barcelona, de forma provisional, del Secretariado. Corresponderá al Director del Secretariado organizar y dirigir la labor técnica de información y documentación, así como la coordinación confiado al mismo. Para orientar esta labor se designará a la mayor brevedad posible un Consejo de Gobierno del Secretariado constituido por 2 representantes del Institut d'Estudis Catalans, 2 de la Real Academia Gallega, 1 de Lo Rat Penat, 1 de la Obra Cultural Balear y 2 de la Academia de la Lengua Vasca.

Este Consejo celebrará las reuniones que sean necesarias para orientar la creación y funcionamiento del Secretariado. La primera reunión ha quedado concertada para la segunda quincena del próximo mes de enero, en Barcelona, entre los representantes designados por las entidades para las gestiones técnicas del aludido Secretariado y que tratará sobre su organización y del estudio del planteamiento de la implantación del bilingüismo oficial. De los resultados que se vayan obteniendo se informará a cada una de las Entidades patrocinadoras del Secretariado. A este efecto el Director del Secretariado estará en relación permanente con cada una de dichas Instituciones.

Paralelamente a las gestiones académicas, se informará a los señores procuradores en Cortes que estén dispuestos a promover medidas legales en apoyo de las lenguas vernáculas, siendo asistidos en todo momento por las Instituciones Cultas, allí reunidas. Estas instituciones trabajarán en colaboración para lograr cuantas declaraciones de principios, dossiers, estudios estadísticos, sociológicos, etc., relativos a la enseñanza de las lenguas vernáculas y a la utilización de estas se estimen necesarios en todos los grados de la enseñanza y de la cultura. Este trabajo se desarrollará sucesivamente según lo exijan las necesidades y las posibilidades de cada momento.

Se aprueba la celebración de un Symposium de Lenguas Hispánicas que tendrá lugar en Navarra, en el verano de 1969. Su organización será confiada a la Institución «PRINCIPE DE VIANA», si esta prestigiosa Institución está dispuesta asumir esta tarea. El Symposium se desarrollará en principio en torno a los temas señalados en el punto 4. El representante de la Institución «PRINCIPE DE VIANA», Sr. Cortes Izal, se encargará de

las gestiones necesarias en orden a este proyecto y su previa aprobación por la Institución «PRINCIPE DE VIANA». Informará y permanecerá en contacto a este respecto con el Secretario de la Academia de la Lengua Vasca. Cuando el estado de las gestiones lo aconseje, el Secretario de Información, Documentación y Coordinación dará cuenta de los planes concretos a cada una de las Instituciones patrocinadoras del mismo, a fin de lograr una colaboración lo más amplia y valiosa posible.

ENTIDADES REGIONALES, REPRESENTATIVAS DE LAS LENGUAS VERNACULAS, QUE ASISTIERON AL ACTO DE LAS BODAS DE ORO DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA, CELEBRADO EN PAMPLONA EL DIA 4 DE DICIEMBRE DE 1968.

OMNIUM CULTURAL, Palau Dalmaes, Moncada, 20 (teléfono 219 80 58) - Barcelona-3. Director de Servicios: Frederic Roda.

INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS. Apartado 1.146. - Barcelona-3. Secretario General: Ramón Aramón i Serra.

REAL ACADEMIA GALLEGA. Palacio Municipal. - La Coruña. Presidente: Sebastián Martínez Risco (Delegó la asistencia el académico: Ramón Piñeiro López).

LO RAT PENAT. Plaza de Manises, 3 (Teléfono 310992) - Valencia-3. Presidente: Joan Segura de Lago.

OBRA CULTURAL BALEAR. Torre del Amor, 6. - Palma de Mallorca. Presidente: Francesc de Borja Moll. (Delegó la asistencia en Antonio Verge i Albertos de Barcelona).

INSTITUCION «PRINCIPE DE VIANA». (Sección para el Fomento del Vascuence). Diputación Foral de Navarra. - Pamplona. Director de dicha Sección: Jorge Cortes Izal.

REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS. Museo San Telmo. - San Sebastián. Presidente: Alvaro del Valle Lersundi.

SEMINARIO DE FILOGIA VASCA «JULIO DE URQUIJO». Diputación de Guipúzcoa. - San Sebastián. Miembros: Antonio Arrue y Angel Irigaray, que son al mismo tiempo miembros numerarios de la Academia de la Lengua Vasca.

EUSKERAZALEAK. (Asociación para el fomento del vascuence). Vda. Epalza, 12. - Bilbao-5. Presidente: Jesús Oleaga, que es al mismo tiempo miembro correspondiente de la Academia de la Lengua Vasca.

EUSKALTZAINDIA. Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6-1.º - Bilbao-5. Presidente: Manuel Lecuona. Vicepresidente: Jean Haritschelhar, Director del Museo Basque de Bayona. Secretario: Juan San Martín, Vice-secretario: José Luis Lizundia.

Iluna argitzen

Adiskide on batzuen ikustera doa nere gizona. «Ator, Ator» ari zaizkio aspalditik. Etsi-etsian eguna berexi, ta or abiatzen da lagun on oien errira. Sartzean, karrikan, topo egiten du batekin, unen agotik ta murriz-antzean gañera au entzunez: «Norat zoaz, adiskide?... Gure etxera?... Gaur?... Ongi, ongi!... iarraiz zere bidean: ni ere zurekin nauzu bereala!».

Kezka zerbait piztu zaio nere gizonari biotzean. Adiskidearen itz llabur oiek, otz-otzak iduritu zaizkio. «Ni ikusiz arritu ote den...: bat-batean agertu natzaio ta: eguna ere beretzat ez ain egokia itxuraz. Ala ere... adiskideen artean arkitzeaz poztu nadin, poz emanez: goazen aitzina!»

Karriketan kurri, billatzen zuen atea arkitzen du. Itxia dago, bai: baña, norbaitek entzunen diola koan io du; ta bereala erekitzen diote. «Zu emen?... Gaur?... Sartu zaitez, sartu!... Zer diozu, adiskide on, zer diozu?».

Au duk, bada! Berriz ere!... Len piztutako kezka aundituz doakio nere gizonari: etzuen bada etorze unekin arrialdura izugarri au bere adiskidei ematea uste.

Etxekoandreak, etxekoa bezala

sukaldera eramán du. Bereala agertu zaio nagusia ere. Karrikan arkitutako etxekoalaba berze bi aizpakin burrunban sartu dire. Seme bat lanetik ta bertzea eskolatik, gatua bizik itealeako go-seakin datorz. Etxeko geientxoak an, sukaldean, dituela oharzen da nere gizona, ta pixka bat bedere arinduz zaio gijajoari biotza.

Bat alde batetik ta bertzea berzetik, galdegin ta galdegin ari zaizkio sukaldeko guziak. Denei, beren txandan ta bear bezala erantzuten, naiko lan! Gauz bat galdegin naian dabil bera ere; ez diote, ordea, tarte pixka batik ere uzten.

Ustegabeen etorri zaie bazkal ordua (bi semeen aldetik, aspaldi artan akiritur bear zuten solas guziak, mingañari nekea arinduz ta agiñak eta orzak lanean iarriz). Maian iartzen dire: baña etxeko denak, ez: oraindik etzaio agertu aski maite duen norbait!

Ele ta ele; ian ta ian: Ipar-Amerikan berriki ildako osabaz ere ibili dituzte beren solasak. Ain berriki ildako osaba! Denek beren iauntzietan zeramaten doluñiñ ura, aren oroimenez zela, uste nere gizonak! Odolekoen, barridekoen, errikoen ta adiskideen izen ta gorabera guziek ai-

patu dituzte bazkarian. Baña, sukaldean oraindik agertu ez zaion artaz, iñork itzik ez. Berak galdegin bearko. «Ta... zera?... Erramuntxo, muttil xoragarri ura... non dabil?».

Sukaldekoak, ilun-ilun iartzen zaizkio: «il zaigu, il zaigu» denak batean erranez. «Goian bedi! Ain urrun bizi zera ta ortaz ez dizugu bere ilberria biala. Zu gaur emen agertzeak berriz, bazenekizuleko ustean iarrri gaitu. Orra nola gertatzen diran gauzak! Afera ontaz ixilik zinaudelako, arriturik gu: non ote zebilen Erramontxo ixilian ginaudelako, kezketan ta arriturik zu!»...

Elkarritzeketa; aferaren mamirano sartzea; gauz batean, bere alderdi guzietara begiratu, ongi oharretza; bearrezkoa izaten da, zenbait gertaerak ta ustegabeak nondik norakoko bidea dakarten guk garbi ikusteko.

Ta aunitz aldiz, egunak, ilabeteak eta urteak ere bear izaten ditugu, norbaiten erantzun bortitz edo arpegi beltz ura, errate baterako, gure kaltetan edo gure onez eman edo iarrri zigutela ezagutzeko. Ala edo ola nik us-te izatea, bat da: gauza dan bezala guk ikustea, bertze bat.

1.

EUSKAL BERTSOAK:

“AIZE BERRI BAT”

Ze egualdi egiten duen danak dakizute. Munduko berriak egunero irakutzen dezute. Erdal abestiak ordutik ordura entzuten ari zerate.

Bañan badago zerbait ahanztu edo beñ-ere ikasi ez-genuna: bertsoak abesten. Euskal bertso zaharrak abesten: gure izkeraren aberastasun bikaña.

Galdetu zuen guraso aiekeri. Galdetu urrutiko baserrietan bizi diran basa-gizon edo baserri-rrekeri. Zenbat bertso ez dituzte abestu. oroipen

agurgarriko urteetan! Zenbat ordu alkarren artean! Atsegin ordu alaiagarriak, bertsoak abestuaz.

Gaur, baizik, beste aize berri batek jo digu. Erdal abesti berriak naigo ditugu. Orain zerbait ta biar ahanztuak ta ezer ez diran abestiak. Obeagoak omen dira!

Nik badakit ez zeratela danak gu bezelakoak. Gu diñ arloteak. Badirala euskal bertsoaz gustatuak dabilzanak. Ikasi naiez.

Atera nai ditut ba, ZALOÑA jaunak jarritako bertso batzuek. Irakurri, ala nai badezu:

— 1 —

Ego aldeko aize zakarrak menderatzen du iparra, soro eze ta zugaitz orlegi dena uzten du igarra. Aize orretan nahasituta etortzen zaigu negarra, euskerak zuen iturri ederra orrek jarri du legorra.

— 2 —

Kristau zintzoak bearrezko du obenari itxi atek, bestela gaitza izango bait-du zeru goietan sartzeak. Ala berean guk euskaldunok garbi ditzagun etxeak, geren erruaz zikindu zittun ego aldeko aizeak.

— 3 —

Izkun gaieko jakintsu danak euskerak dauzka arritzen, nola eta noiz edo nundikan asi ote zan sortutzen. Ta izkuntza orren jabe diranak nolatan uzten galdutzen, beren baietan gure jokera inola ez-dute ulertzen.

— 4 —

Mendian borda genuenean euskeraz giñan mintzatzen, lurrak lautuak jarri ta gero asi giñaden lotsatzen. Arrotz izkera ozenagotzaz gure artean ibiltzen, bere izkera zuen erria erderarekin nahastutzen.

— 5 —

Oraingo amen bular esneak ez ote dauka kemerik, gure errira begiratu-ta ez-dauka beintzat itxurik. Arrotz mintzoa aidean zear ez-da entzuten euskerik, ezetz ta ezetz, berriro ezetz, ez daukagula lotsarik.

— 6 —

Areitz bateko adar guziak ez dira izaten berdiñak batzuek oker, besteak zuzen. konkor-dun eta lirañak. Eusko enborrak ere ez ditu semeak berdin egiñak, batzuek zintzo jatorrak eta besteak berriz gaizkiñak.

— 7 —

Anai gaizkiñak nun nai dabil-^[tza] euskal izenez puztutzen, bañan ez dira inoiz ikusi euskeran alde saiatzen. Olako adarren itzalak ez-du eusko enborrik mardultzen, beren anaien gogo on dana oiek digute ondatzen.

— 8 —

Arreba-anaiak esna gaitean jaso dezagun biotza, ez daigun utzi abes dezaten euskeraren eriotza. Geren artean euskera ibilli, zergaitik nabaitu lotsa: «zu, euskalduna, euskeraz^[mintza]». Alguztidunak diñotsa.

— 9 —

Birau gabeko izkera degu Aitor-ek eman ziguna, gure amaren bularretiko esnerik ez-titsuen. Ludi guziko zaharrena da gure euskera kuttuna, zeru goiean Jaungoiko Jaunak geiena maitte dubena.

Irakurle: Gustatu al zaizu? Ba, benetan ezagutzen dezu euskeraren aberastasun sendorra!

ERKIZIA

“OTEIZA‘TAR JORGE‘RI OROIMEN BEREZI BAT”

Jorge Oteiza yauna Gipuzkoa eta Euskalerriko arri iduri egillerik onena da, Eskultorea. Arantzazu Elizarentzako lan egiten dago irudiak moldatzen.

Orain urte asko ezdala Oteizaren alde ala kontra zeudenen arteko iskanbill aunitz sortu ziren eta azkenean denok ados daude Oteizak asma-tutako eder lanarekin. Ona emen Joakin Aldabek paratutako bertso hauek.

Iskanbill gaitza sortua dago zure «ABSTRAKTO» eskolakiñ. Ni gai onetan ta beste askotan gizaju naiz ta ez jakiñ. Alare, tori nere eskua; guazen biok elkarrekiñ.

Ez det ikusi oraiño arte zure buru lanarikan. Eznazu izana Arantzazu alden, ta ez det gogo aundirikan. Inora anka ateratzeko, jez da orrelakorikan!

Ala ta guztiz irakurri det zugaz idatzitakua. Zure aldekoa ta beste aldekuak naute nastu xamartua. Danok arrazoi. ¡Ba! ala uste! Auxen diaguk itxillua.


Zure IRUN'go lantegi lekun daukazu zure atsegiña, ta egiten dezu azaltzia gatik

zure obrak, alegiña. Moldatzen zabiltz aspertu gabe elkartuz buziñ-burdiña.

Txalo ta sarik jasua zaude zure lanaren on bidez. Siñale degu etzabiltzala jakiñ gai goitsuaren kaltez. Ona zera ta, Jorge Oteiza: olaxe beti izan zaitez.

Gaur edo biyar gertatu ezkeru obraren bat ikustia, lenengo gauza egiño det nik luzaro ixill begitzia. Askoz obia ez jakiñentzat apal ta umill egotia.

Gaurko munduan, (geienak bein-^[tza]) baztertzen degu «ABSTRAKTUA». Naiago zaigu, askotxoz naigo diruz bete zakutua;



jolaste guztik, ta erotzeraiño foot ball pilot ostikua.

Agur, Oteiza, ta bizi zaite beti goruntz begiratzu. Andik argiya datorkizuna zure barrun gogoz artuz. Lurreko gauza zirzillkeriak azpin kalka ta egatuz.

JOAQUIN ALDABE

“MARKESAREN ALABA”

Otza atean. Elurra mendian. Izotza besarsoro aietan. Neguan. Neguen biotza. Urte-berrien asiera. Ezda lan egiterik. Orduak dijoaz ezer egin gabe. Zer egin jakin gabe. Ordu illak. Su ondoan ildako orduak. Oroipen agurgarriko orduak. Orain, urte asiera ta garai ontan gure buruak dakarkiten aur ta gazte denporako oroipenak.

Bertsoetara euskaldunak zaletasun eukirik, askotan bertso zaar batzuek ebekin dakarkite oroipen agurgarriak. Orren-gaiñ, gaur nai ditut go-gera ekarri aunitzek jakiñak dezuten «Markesaren alaba»ren bertsoak. Aiek abestuaz, aspalditsoan asierako 1969 garren urte zoriontsu baten nai sendorrek lagun ta irakurle guztieri.

— 1 —

Zeruak eta lurrak egin zituana memoriya argitzera atoz nere gana; esperantza badaukat zedorrek emana kunplituko dedala desio dedana.

— 2 —

Amoriyozko penak bertso berrietan publika al banitza Euskal-errietan, enteratu naiz ongi enkargu oyetan San Jose arratsaldeko iruterdietan.

— 3 —

Markes baten alaba interesatua mariñeruekin enamoratua, deskubritu gaberik bere sekretua amoriyua zeukan barrena sartua

— 4 —

Egun siñalia zan goguan artzeko esan ziola aren deseio dedan itz au manifestatzeko zurekin Antonio nago izateko.

— 5 —

Zer esaten didazu Juanita itz ori tentatzen ai zerala trazak badirudi, etzait zure gradurik tokatutzen neri ez burlarikan egiñ mariñeruari.

— 6 —

Iduki dezakezu ongi sinistua aspaldiyan neguala zutzaz gustatua Etzaitut nik utziko desenparatua ala egiten dizut gaur juramentua.

— 7 —

Konformatu ziraden alkarren artian ezkonduko zirala urrenko urtitan, eskola ikasteko biyen bitartean beraren erritikan guztiz apartian.

— 8 —

Ala disponiturik jarri ziran biyak kartaz entenditzeko alkarren berriyak formalidadiakin jartzeko egiyak baña etziran lo egon amaren begiyak.

— 9 —

Alferrik izangodira asarre guztiak ez naute mudatuko eternidadean, esposatu nai nuke kariño onian Antonio Maria etortzen danian.

— 10 —

Eziñ egon zan ama itz ori sufritzen beriala asi zan kartak detenitzen, intenziyo aundiagaz eskontza galdutzen. Juanitak alakorik etzuan pentsatzen.

— 11 —

Amaren maliziya korreora joan da Antonio il zala egiñ zuan karta. Juanitaren tristura maitia esan ta engañatu du bestek gezur bat esanda.

— 12 —

Amak esaten dio: Juanita neria galdu da diotenez Antonio Maria nik billatuko dizut beste bat obia mayorazgo interes askoren jabia.

— 13 —

Ama ez neri esan orrelakorikan ez det nik bestegana amoriyorikan, eziñ alegre leike nere barrenikan kontzientzia ona egonagatikan.

— 14 —

Utzi alde batera orrelako lanak ez ditut nik ikusten zu bezela damak, nai badituzu artu onrak eta famak giyatuko zaituzte aitak eta amak.

— 15 —

Denbora kunpliturik galaya abiyen zer pasatu ote zan aren memoriyan, kartarik artu gabe juan dan aspaldiyan inozente sartu zan jayo zan erriyan.

— 16 —

Au da lendabiziko esan zenduena: zer da musikarekin onratzen dutena? Markesaren alaba kalian barrena esposario zala ark biar zuena

— 17 —

Desmayaturik egiñ zuen ordu bete gero nobia eske itz bi egiñ arte, inguratu zitzaion makiña bat jende bigarren ordurako ilda derrepente.

— 18 —

Gaba pasatu eta urrenko goizian entierua zuen bigarren klasian. Markesaren alaba guzien atzian. Ze pena izango zan aren biotzian!

— 19 —

Penarekin lerturik Antonio il zan akonpañatu zuen Juanitak eleizan, naitasuna baziyon esan dedan gisan geroztikan etzuen osasunik izan.

— 20 —

Erremedio bazen sentimentu ori bitarteko bat jarri Jesus maiteari, orazio egiñaz Birjiña Amari zuruan gerta dediñ Antonio Mari.

(“Iturrino”n orri batetik artu ditut bertso ok euskaldun guztientzako)

ANTTON

IKASI, MIKASI...

¡Bota nei beste kopathoat...!

- ¿Beorrek asmatzeo «IKASI-MIKASI»'k dakarrena?
—**Bai, ta ez.**
—Esan beza garbi: ¿bai eo ez?
—**Begira, emakume.** Zu bezala, asko dire erlijioko gauzetaz zerbait jakin nai dutenak. Oietakon bat nigana etortzen darian, nik nere manetofonoa martxan jartzen dot. Gero, neri galdetzen didatena ta nik erantzuten diotena, piskebat orraztuta, prestantzen dot, «IKASI-MIKASI»'n argitaratzeko; Galdeak ez dire, bada, nereak; erantzunak, bai.
—Nolanai, ongi esan bezake, «IKASI-MIKASI»'k dakarrena, beorrena dela. Galdetzea, gauze erraxa da; baño, erantzutea...; gaur biñepin, kostako zaio.
—**Esan, bada, zer nai dezun jakin.**
—Eztakit nola asiree...
—**Asi nolanai.**
—Ni, neskatx gazte nitzela, agindu bat ein nun Karmengo abitoa eamateko. Ongi kosta zitzaizun, baño bete nun nee ainduu.
—**¡Ainbeste neskatxek deamate!**
—Esan beza, ¿zeamatzen...!
—**Egi da, diozuna; baño, segi.**
—Nik, nee amai esaten nion: «Beste neskatxek obligazioez ez badute Karmengo abitoa eamateko, ¿zeengatik izan bear do pekatu nik ez eamatea?»
—**¿Zer erantzun zizun zure amak?**
—«Beste obligazioz gañean, bakotxek bee buruu beartu dezake agindu formal bat eiñez».
—**Ongi erantzun zizun zure amak.**
—Len esan dioten bezala, bete nun, larritasunean eindako agindu ue. Baño, orain, erokeriko gauzeat agindu bai nun, ezin dot bete.
—**Erakeri bada agindu ziñuna, etzaude bearturik betetzeko.** Kontun iduki beti zer den agintea edo botoa.
—Obe izango da beorrek esaten badit.
—Agintea, edo botoa da, Jainkoai zerbait gauz on, egin ditekean eta kontrarioan baño obegoa eskeintzea, gere burua pekatuen azpian beartuaz. Gauze bat da, bada, zerbait egiteko asmo artzea, esaten bateko, illero konfesatzeko edo egunero ainbeste Aitagure errezatze, eta beste bat agindu formal edo botoa egitea, pekatuan azpian gere burua beartuz edo obligatuz.
—Ama Birjiñei, eo Santuon batei, ¿ezin diteke zerbait agindu?
—**Agintea (botoa), Jainkoari bakarrik egin dezaioko, naiz askotan Ama Birjiñen edo Santuon baten debozioz bada ere.**
—Nik eztakit ze ta nolakoa den ein nun aindua. Nee senarra, iandero moxkortzen baita, bein, elizen neola, esan nun: EMENDIK AURREA, NEE SENARRA TABERNARA JOATEN DENIN, NEE SEMETXOAK ETXETIK KAMPOA BIALIKO THOT, ETA EZDIOTET ATARII IIKIKO BEA ETXERATU ARTE...
—**Ta, ¿ze gertatzen da?**
—Beorrek pensa bezake, ze pasatzen den. Berdiñ etortzen baita gabeko amiketan eo goizeko iruetan, umik asten dee karraxika, ni nearrez, ta auzo-koak berriz parrez...
—**¡Emakume gaixoa! Etzaude bearturik agindu ori betetzeko, gauze txar bat agindu bai duzu.** Agintea (botoa), gere buruari beartzeko, GAUZE ON BAT bear du izan. Ta, zuk agindu duzuna, gauze txarra da. Gañera, ¿zergatikan ordaindu bear ditute aingeru oik beren aitaren mozkorkeriak?
—Beorrek esan do, agintzen dena, naiz gauze ona izan, kontrarioan baño obegoa izan bear dula. Esan beza argiro nola dan ori.
—**Adibide (ejemplo) batekin adituko dezu ogeki.** Uste dezagun, zu neskatx gazte ziñela, ezkontzeko agintea (botoa) egin ziñula. Aginte orrek etzizun beartuko, gero monja sartzeko asmoa artu izan baziñu; ezkontza baño, naiz gauze oso ona izan, monja sartzea obegoa baita.
—¿Beñee, ezkontzeko agindua ezta baliozkoa?
—**Beñi edo beñi, ezkongaiak erdi nasturik ba'dabilte edo... eskandaloa kentzearren, egin diteke lenbaitlen ezkontzeko agintea, edo botoa.**
—Orain uste zagun, nik agindutakoa gauze ona zela, baño oso zalla betetzeko, ¿bearturik neon, nai ta naiez, eskiñitakoa betetzea?
—**Benetan egindako aginte, bete bear da beti, al ditokenean biñepin.** ¡Obe da ez eskiñitzea, eskiñitakoa ez betetzea baño!
—Ta, ¿gauze zalla denin?
—**Betetzeko zailtsu denian, norberak aldatu dezake egindako agintea; baño beti beste gauz berdiñekoan, edo obegoan, naiz betetzeko erraxagoa bada ere.**
—Jar beza ejenploat.
—**Uste dezagun, Aralarko San Migelera oñtsik joateko agintea egin ziñula.** Zeorrek aldatu dezakezu aginte ori, eliz artan konfesatu ta komekatzearren, edo meza pare bat entzutearren.
—¿Jakín izandu banu...!
—**¡Igo al zera noizpait Aralarera oñtsik?**
—Oñtsik ez, baño baru osoan bai: ¡joan da etorri!
—**Urbildik izango zen...**
—¿Lau ordu bide joatekoan ta beste lau bueltakoan, beste ordu pareatzen a eonda! Alaree, gustoan iithen nun, franko bizkor bai nintzen ni garai artan.
—Orain, ere, bizkor zaude zu.
—Ez amiste, jaune; ez amiste...
—**Gañera, nolabait nagusi denak, utsalarazi (irritar) ditzazke bere menpekoen aginteak: senar-emazteak, elkarrenak; aitamak, semienak; nagusiak, bere neskamiak edo morroienak, eta ola. Beti, arrazioen batekin, ori jakíñe da.**
—Ta, ¿barkatu?
—**Aite Santuak, kristau guztiei, ta obispo jaunak bere menpekoai.**
—Mille esker, jaune, beorren irakaspén guziengatik. Orain, ain ona denez keo, ¿eneeke esan ze ein nezaken nee senarrak ukondoa geiegi goratu ez dezan?
—Ez da gauz ain erraxa, diotenez... Ala, ere, zure esanak eta erristak alperrik ba'dire, egin dezakezu zure egoeran zegon emakume batek egin zuena...
—¿Ze egin zun?
—**Senarra tabernara juaten zenian, bera, ere, juaten omen zen atzetik.** Gizonak baso bat ardo eskatzen bazuan, emazteak beste baso bat ardo eskatzen zuen. Kopatxo bat eskatzen bazuen: «¡BOTA NEI BESTE KOPATHOAT!»...
—¿Ta?
—**Egun pare batez, ez omen zion gizonak deus esan. Baño, irugarren egunian:**
—«¿Era ontan, iraungo dute gue diruk?»
—«Zuk ekus...» erantzun zion emakumeak.
Au aditzean, ordaindu zuen gizonak tabernariari biek edandakoa, ta ¡etxera!
—¿Iritxiko oteet nik olako zorionik?
—**Ekus zazu biñepin...**
—Mille esker, jaune, berris ee, ta banoaie.
—Ta ni, emen naukazu, nai duzunean etorri.

A. ASTIZ ARREGI

Bertsolari «eskolatuak» eta... «ez-jakiñak»



Bada aurten seigarren urtia. Urriaren 12'an Ama Birgina Pile-rekuaren egunian, Euskalerriko bertsolari danak ez bada ere geienak, Markina'ko Karmeldarren Konbentuan biltzen dirala.
Naparruan amalau bat bersolari izendatuak daude, baño oraindano bilkuretaraz ez da bat bakarrik agertu.
Uste osua degu, urrengo urtian baten bat ikusiko degula.
Aurten, bertan ziran Xalbador eta Mattin ere.
Urte guziz, 50'etik gora izaten dira biltzen diran bertsolariak. Urte guziz ere norbeitek itzegiten du bilkura ortan, eta aurten nerretzat izandu zen ohore ori. Ona beraz, itzaldi orren zati bat.

BERTSOLARI «ESKOLATUAK» eta... «EZ-JAKIÑAK»

Bertsolari gaietan goi-goiko mallan argitzen diran euskaldun jakintsu denak, ara nola, D. Manuel Lecuona ... aita Onaindia ... Amuritz ... Zeleta, eta ... eta ... denak bereixten dituzte bertsolariak bi gaietan: «eskolatuak» eta «ez-jakiñak».
Bakarra naiz oraindano, nik uste, berixtasun edo dibisio ori onartzen ez detana. Alako zerbeit sentitzen det gizon ospatsu oien iritziazen aurka agertzia, baño nerretzat ez dago bertsolari «eskolaturik» eta «ez-jakiñak».
Nerretzat bakarrik daude BERTSOLARIAK: Batzuk ONAK, beste batzuk TXARRAGUAK, eta beste zonbeit ERDIPURDIKUAK.

«Eskolatuak» alde daudenak, ez dute arrazoinik agertzen, nik dakidanik beintzat, euren iritzia argitaratzeko.

Ona nik dauzkean dibisio edo deberdintasun ori ez onartzeko.

a) Asteko, bertsolaritza ez da liburuetan ikasten den jakintza edo zientzia bat.

Ala izatearekin, bai Basarri... bai Muniategi eta berdín Lopategi, bertze guzien gainetik aise nagusi izango lirake. Ikus dezagun zergatik.

Basarrik, español eta pranzes literaturan azaldu diran liburu geienak irakurriak omen ditu, berak dionez. Neronek irakurria diot Unamuno bera ere geiena irakurria duala.

Muniategi Bilbo'ko Unibersidadean aurrera dijua bere ikaskintzan. Lopategi aldiz, bai filosofiko eta



Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

baite ere teologiko ikasketak egiñak ditu.

Eta guk diogu: Bertsolaritza jakintza gaia izatera, «eskolatuak» oietako edozeinek TXAPELDUN bear luke Euskalerrian.

Eta zer gertatzen da egitez...? Azkeneko urte auetan iru oietako BAKAR BAT ere ez dala Txapelaldun izan.

TXAPELDUN da «Ez-jakiñ» bat: UZTAPIDE.

b) Basarrik lendabiziko aldiz txapelaldun irten zanian, 1934 inguruan, etzitian irakurriak geroztik irakurri ditun liburu denak. Alaz ta guzti, badut uste ORDUAN. GAUR den bezin bertsolari ona eta trebea zala. Geiago esango det: ORDUKO Basarriren bertsuak beste garratz bat ... beste mami bat ... beste gaur ez duten, biotz-kolpe bat zuten.

Guazen aintzina arrazoinetan. «Bada bertsolari bat, Pranziko Villon eta Verlain olerkari aipatuekin konparatzen dutena. Nor da ori...?»

«EZ-JAKIN» bat: Barkoxe'ko Etxaun.

d) Nork sortu du euskaldun denak berpizten gaitun GERNIKAKO ARBOLA...?

Gazte-gazterik ikastolara abiatu eta... gerlara juan zen gazte arlotek batek: Iparragirre'k.

e) Basarrik egun batez itz oiek idatzi zitun «Z. Argia»-n: «...Egundo geure denboran kristauaren aotik entzun ditugun bertsorik onenak...».

Norengatik idatzi zituan Basarrik itz goragarri oiek...? Bertsolari «ez-jakiñ» bategatik: Urepel'eko Xalbador'engatik.

f) «...Eskolatuak ere ezin kanta zezakean, esanai jakingarriago-ko bertsorik». Norengatik idatzi zi-

tuan Zeleta'k laudoriozko itz aipagarri oiek...? «Ez-jakiñ» bategatik: Errenderiar Xenpelar'engatik.

Erran ditugunakin, nik uste det garbi agertu dala, bertsolarien arteko bereixtasun ori. «eskolatuak eta ez-jakiñak» arteko bereixtasun ori. ezin genzakegula onartu.

Bertsolaritza ez da matematika asko ... edo geografia ... edo historia jakitia.

Ez da ere «El Quijote» buruz jakitia edo ... Moliere ... edo Shakespeare ... Bertsolaritza besterik da. Jainkoak eman dio doai berezi bat. gizonaren sendimendu eta griñak ondo ezagutzeko daukan doai berezi bat.

Eta sentitu ondoren ... bertsoz ongi azaltzen edo esaten dakiena. Batzutan piper pixka batekin nahasitako itzekin, bertzetan laudoriozko edo biotz minezko itzekin. Zonbeitetan irri par ... bertzetan nigarrez.

Ori da bertsolari jakintza, eskolatan ikasten ez den jakintza.

H



ZANPANTZAR



Ituren eta Zubieta'ko errietan inñauteak ospatu dira yoan den libeltzen azken egunetan. «Tunturrek», aintzineko oitura denez atera dire mendi bidexka artek erri hauen kaletara «Zanpantzar» delako festa hontan egiyen tuen bezala.

ERRIZ-ERRI



ODERIZ (LARRAUN)

Bazkal ondo bat. Aralar gainean aize garbi bat asnatutzen zan, udazkeneko egun zoragarri baten. Aurtengo udazken honek eskuratu digun ordu zoragarri oietik baten. Ondo ginauden an. Oso ondo. Jun bear genduen, baizik. Ygande ar-



tako gure ateraldi arek beste elburu bat bai-zaukan.

Jetsi gina, gure bi aldetara egatzen zan ikuskinaz konturatuz. Ez oso ondo zaitutako Barabar erria atzera utzirik, biragurutzte batera atera gina. «Lekunberrira», adierazi nai zigun idazkin batek. Pozik jarraituko genduen bide ari, bañan ez. Eskuñera artu bear izandu genduen.

Yribas-bidea alde batera utziaz, Alli ta Astiz'n atsenalditso bat eginik, azkenez, an, Aitzako-Malkor deritzaion mendien gonetan begiztatu genduen gure ibilketaren bukaera: **ODERIZ (Odoitz euskeraz) erria!**

Laut'erdi inguruak ziran. Erria lasaitasunez betea zegoan. Gazte-txo batzuek jostaketan, pillota-lekuari euskal arnas berexia emanaz.

—Nun arkitzen da emengo gendea?, galdetu genion bateri.

Etzigun ulertu.

—Nun daude emengo gendea?, guk berriro.

—An!, erantzun zigun beldurraz iosia, beztakin ondoko ostatua irakutsiaz.

Beste eun galde-modu egiteko asmoetan ginauden, bañan adierian sartutako gizon bat guregana urbildurik, erantzuteko gertatu zan. borondate osoaz.

Erriari buruz sortu ziran gure lenengo itzak. Erritar, gaztedi ta beste bertako gora-bera buruz.

—Ezdago gauz aundirik esateko, zion arek. Bañan berak ezañetan zabilkan izkera garbi ta erraz ari buruz bazagon zer edo zer esateko gaita.

Ostatuan sartuazi gindun. Danen begiak gure gana biurtu ziran lendabizi, beilaxe kartetan jarraituaz. Gazte batzuek, oso esker onez, alxia eskeindu ziguten.

Lendabizi, danak mututu-ta.



SALDIAS

MAISTRA BERRIA ERRIAN

Maistra berria etorri zaigu errira, lehengoa, Doña Maxima Huarte gaxo dagolako. Gaiñera Iruñeko Gaxotegian (Hospitallean) arkitzen da.

Gaitzak asko xamar iraungo dion bildurrarekin, bera ongi jarri arte, ordezkoa eskatu zun eta baita erriak ere, eta, suertez, bereala bidali digute. Oso gaztea da Maistra ordezkio hau. Bere izena: Doña Maria Josefa Iso, Sanguesa'koa da berez.

GAXOAK

Eguberri eta Errege inguruan erriko gaxo guziari gure ikustaldia egin diegu.

Azko poztu dira norbait han ikustean. Bat edo beste ikusi ditugu makal samar daudela. Neguak denei asko adierazten digu, baño batez ere gaxoeri.

Haien ongi etorria eta poza ikustean, maizago ikustera joatea erabakia artzen dugu.



ELIZONDO

EUSKERA

Elizondo'n «Escuela Laboral» delako eskoletxean asi dire eskuarazko ikasketak. Azaroaren zazpigarren egunean, arratseko zazpi t'erdietan eman zioten asiera ikas-kalari eta emendik aitzina astean bein, ortzegunetan, izanen ditugu. Onatibia yauna irakasle dela.

Pozten gaitu biziki ikusteak ainbeste ikasle, yende gaztea geiena, askual ikaslanari lotua. Itxuraren kontrakoa izanagatik ere, ustez bazen zaletasuna eskuarari gure errian.

Ongi idazten zuen Mariano Izetak «Zeruko Argia'n», gai huni buruz:

«Gauz guzietan bezala lampide hortan «euskuararen ikaslanean», ere, zerbait ikastekotan lehenik zaletasuna behar, hau gabe ezañta deusere egiten ahal, bañan hori dutenik oiñarri sendo batean finkatu aunitz dezaketek».

PARROQUIA

Yainkoa lagun, laster ikusiko dugu gure Eliz nagusia ongi apaindua eta aldarea eta gañerako guziak behar bezala muntatuak, emendik aitzina eliz funzioak zelebra daitzin Elizak manatzen duen arabera.

Ilizan ari diren obrak hoiek aunitz kosta direla nork eztaki? Baño badakigu biotz oneko kristau aunitz badirela gure errian sosdunak gañera; hoiek eta beste guziak ere okasio ona daukete beren sakelak pixken bat arintzeko. Aintzinetik Yainkoaren izenean esker-erak deneri.

(Baztan'go «Elkartasuna» delako errebestitatik artua).

NEKAZARIAK

neskatxa batek dantza-tokian euskeraz ez-diolako erantzuten; orrelako bat edo beste ikusi-ta ez naiz ni asko aritzen baña Principe Vianak ori zabal-tzea buruan etzait ongi sartzen.

Orgatik nator bertso batzukin erregutuaz barkatzeko naiz neskatz orrek, naiz mutill orrek

gauzak obequi jartzeko, bakotxak esan lezake berriz ni ez naizela nor erakusteko baña al-badaikela lagundu nai det gure erritarrak obeki ikusteko.

Itz gutxietan esan ditek ikasia Crixto Jaunagandik etzayogun besteri egin guretza nai ez degunik; grina txarrian etzagun izan Euskalerrian egunik zeruko Aitagana bildu gaitzen bidean galdugabe lagunik

«Arbazu maite-duan, Goldaraztar batek»

ARBAZU-KO URREA

Ustez jakintsu azaldu nai du besteren begian agotza ikusi-ta, berean egurra euki-lezake ezagutzen ez ikasi-ta, gezurra dala iruditzen zait orrela ateratzea kopeta bearrezkoa izan-liteke garbitzea mintzatu-ta

Euskal erriko oitura onak zaindu edo gordetzeko sortua dala «Principe Viana» ez nago ni ukatzeko, baña batzutan ongi egin alian kaltegarri biurtzeko gutxi aski da oziñetik an ardo ona re mintzeko

Arbazu ondoan jayoa izanik ezagutzen ditut siñes erantzuteko mutill orreri bere esanaren ordañez; aita eta aitona ere ara ara juten-ziran oñez beti entzun izan zioten Arbazuz ongi itz-eginiez

Nondikan dator orain mutill bat erriko izen ona zikintzen



URDIAIN

Azken urte auetan Urdiain aldatzen ari omen da. Egia edo gezurra, jendeak ala dio. Lengo gaztedia ez omen zen ala konpontzen; muxinguen besterik ez omen zuten pentsatzen. Beti aitzkan eta elur pilotaka. Erriko zaharrak, eta ain zahar ez direnak aitatzen dute.

Aurreramendu au gauza askotan ageri da; esate baterako **lante-gietan**. Urte askoz kanpoan irabazi behar izan dute urdindarrak beren eguneroko ogia. Olazti'n, Altsasu'n, Prointzian. Ibillera onek arrixku eta gastu aundiak zituen. Bideko arrisku eta jateko berexiak egun eta beste, urte guzian.

Gaur Urdiain besterik da. Gizonak, askok beintzat, errian dute beren irabaz-bidea. Eta itxura onez berriz ere izango da enplegua. Bertako langilen utsa bete da. Lana ba da.

Emakumeak ezin zuten hori bera esan. Langile izatea gauza bat da; baño soroan zebiltzen bezela ibiltzea ez dago ondo. Gaite aundiak ekartzen zizkien neskeri ibileria onek: beti arrastaka eta esker txarra atzetik. Izan ere, lurra Urdiainen ibiltzen den leran ezin du irabazi aundirik eman. Eta makurrena dena, beren gastutako behar zutena ere gurasoek emana...

Gaur emakumearen lanak gizonarenak ainbat balio du, eta ba-koitzak bere bizia ateratzeko bide egoki bat amesten zuten Urdiain'go neski gazteak. Ez dira alferrak eta lurra utziz, bestelako lanen bat nahi zuten.

Aurtengo Erregeak hori ekartzen die: fabrika txiki bat Amar amabost bat emakumendako lana izango omen da asieran. Eta laister egin nahi omen dute.

Azkenekotz, hor dabiltz kezka bizian gure jende jarriak. Ez dira bakarrik gazten problemak: berek ere ba dituzte beren egun ilunak. Eta zer jolas dute orai gure zaharrak?

LURRENA

«Iñork lanik egin nahi ez!» Or geldituko dira larre gure lur guziak...

«Eta zertatik jan?» Denak fabrikara! Denak ijili ajala! Nekazantzarik ez ba da nundik sortuko dira jatekuak?

Gure zaharrei esan behar zaie egoteko lasai. «Parzelaria» egin ba zen, egin, trator bat gehiago da Urdiain'go dermiyuen, lengo ogei idi pare oberenak baño. Eta ogei gizon aiek egiten zutena, batek egiten du... gustora jarrita. Esan bestela noiz ezagutu den errian orai ainbat gari eta arto biltzen...

Ez hori bakarrik: esango nuke bide erdian gaudela oraindik. Urdiain'go lur guziak esku batera ibiliko diren eguna etorriko da. Eta Burunda guzia inguratuko balitz, askoz obe. Orduan komeni dena bakarrik ereinen da sorotan; eta gizon gutxi lan obeak egingo dituzte. Idiekien gertatua gertatuko da oraike tratore guziekin. Denendako obe.

DANON EGITEKOA

Nork daki gizon elkartuak zenbat lezaken?

Orai bi urte txorakeria iduri zuen gazte batzun asmoak: Urrizti'n idoi bat! Zenbat porlan beharko zen ortako? Eta lana!!

Batzuk ziotenez, irrutiegi; etzen iñor joango. Beste batzundako ur otza. Baserreka bere amurraiek, etzen igarikako on. Ba ziren «piscina» zer ote zen galdetzen zutenak ere.

Gazteak etzuten kontuak ateratzen denbora gehiegirik galdu: lanari jo zioten eta or daude Urdiain'go herriaren izena baztar guzietara zabaldu duten gauzak. Egia da azken ontara jendea aspertu dela. Bigarren urteko jokabidea ez da ain ona izan. Belarra txerriak uxarraturik, askotan erdi utsak piszinak, mustakiak falta... Baño or dago egindako lana, eta or Urdiain'go Gaztedia. Ez dut uste ankaz gora bota nahiko dutenik herri askoren inbidiagari zen edertasuna.

Hori bezela gauza asko egin laizke herriaren elkar atuezkerok. Go-goan dut mutil bakoitzak MILA'na peseta eman behar izan zuen eguna. Ainbeste lan, ainbeste izerdi, kuotak eta gañera... zorra. Gazte auek biarko egunean beren umeeri hori esaten dietenean ago zabalik utziko dituzte seme alabak.

Alare, ez da hori Gaztediaren batasunak ekartzen duen fruturik oberena. Gizon izaten ikasten dute. An ikusten da bakoitzak zer duen balio. Nor den beren itzaren jabe, eta nor ajola gabe. Alferrak soka motxa du eta arrastaka ibili beharra izaten du. Eta migaioak ere izaten dira besteak egiten dutena ankazpian sartzeko. Zer eskola polita bizkar gainean alako zama bat daraman Gaztediarena!

Azkenekoz, irugarren mesede bat: biarko egunean herria nola zuzendu ikasten dela. Herriak beren agintariak ba dituzte eta gero ere beharko dituzte. Ez dira denak berdinak ateratzen. Eta askotan, gehiena balio dutenak ez dira sekula kargutan jartzen. Gazte jendea lanean ari balin ba da, eta beren kargutan pasatu, biarko egunean denek jakinen dute zoin diren komeni diren gizonak. Eta aukeratzen dituzten garaian ikasia izango dute agintzen. Ez da askok uste duten bezain errega agintze hori. Ongi agintzen jakiteko, obeditzen ongi jakin behar izaten da aurretik.

Etzaio ajola gehiegi eman behar behin edo beste sortzen diren asarre ta istillueri. Urte bateko utsak bestean zuzendu eta danok borondate onez jokatu.

Urdiain, gauza askotan ispillu bezala izaten asia da; herri asko dira emengo berri jakin nahian dabilzanak beste orrelako zerbait egiteko asmotan. Artu dugun bidean aurrera egin dezagun. Ba dira neguko lan-bide ilunak gero udan agertzen direnak. Udan garia bildu nahi duenak, neguan erein beharko du. Munduko legea da.

(Urdiain'go «AITZIBER» errebestitatik artua).

teroa, beietaz mintzatu zen eta irugarren albaiteroa Augusto Etxeberria jaunak ardietaz itzegin zuen.

Iru albaitero jaunen itzaldiak inportantzi aundia zuten eta azien-den azkuntzari buruz egin zituzten solasaldiak yakingarriak izan ziren.

Azienden azkuntza dugu Baztan' en industriarik aundiena eta merezi du ongi zaintzea.

Julian Lorenzo injeniero jaunak itzaldi interesgarri batean, bazkak eta siloak aipatu zituen, azienden mantenua nolako behar den adieraziaz.

Jose Maria Labayen jaunak bazkak aipatu zituen erranez emengo belai eta landetan zer azi-klasa komeni komi litzaketen ereitea, lurra nola ongarritu beharko litzaketen, bazka onak eta indar aundiak izan ditezten.

Luis Santos jaunak bere itzaldian erakutsi zuen, beitegi, zerritegi, arditegi, ongarritegi, belartegi ta gañerakoak nola moldatu behar diren.

Justo Donezar jaunak izan du itzaldi edo kursillo hauen zuzendaria eta jaun hunen lana aundia izan da.

Zortzi egun iraun dute kursilloak eta egun guzietan yende aunitz ibili da. Baztan'go nekazariak erakuspen hoiek gogo onarekin artu dituzte eta eztago dudarik emengo Nekazalgora berritu eta indartuko dela.

Balleko Etxeko Aintzindari jaunak ere Kursillo hoietan egonak dira, eta Balleko Alkate ordezkioak azkenegun egunean Kursilloen bukaera eman zion denei eskerrak emanez.

M. IZETA

Euskera mintzatuaren «Azken atsak...!!»

«...Aunque el euskera fuera un idioma desabrido y torpe, le amara yo como a la niña de mis ojos». (Arturo Campión).

Napartar zintzo, euskaldun jakintsu eta gizon argi izan zenaren itz hunkigarri oiekin asiera eman nahi diogu gaurko gure lan oneri.

Euskera maite degunak ez degu, beinere bear bezala ohoratuko maisu agurgarri izan zenaren oroitzapena.

Izan bitez beretzat
Nere gaurko lehen itzak,
Ta Jainkuari eskatzen dio nere biotzak
Zabal ditzala
Naparruan eta Euskalerrri guzian
Maisu arek utzitako irakaskintzak.

Dagoan illobitik gaur jaiki baledi, zorionezko agurrik biotzkorra zuzenduko lioke Naparruako Diputazioari, eta bere menpian eta aginduz euskeraren alde saiatzen diran gizon ospetsueiri.

Baño!! zenbat negar!! zenbat malko garratz!! ez lituzke ixuriko, bera jua zen ezkerotzik, euskaldun errietan, euskerak egin duan atzerakada ikusiaz.

Batez ere, euskaldunak galtze orren sendimendurik ez dutela, ikustian.

Gaur, guti izango dira Euskalerrrian, batez ere Naparruan, guti izango dira bere seme argi aren itzak errepikatuko lituztekin gizonak: «Aunque el euskera fuera un idioma desabrido y torpe, le amara yo como a la niña de mis ojos...!».

Bai, oso guti.

Euskaldunak bere izkuntza bazterreratzen dute, etxeko traste zar bat, ganbarako zoko batera bazterreratzen dan eran.

«No sé el vasco ni... falta que me hace», erantzun zigun, denbora aunitz ez dala, Ulzamako nexka polit batek, euskerarik bazekin galde-tu genionian.

Nork bururatu zion, amaren altzuan euskeraz altxatua izango zen neskatz ari, nork bururatu zion sendimendu trakets ura: «No sé el vasco ni... falta que me hace!».

Ulzamako erri batian!

Ori da triste eta penagarri, galtze orren sendimendurik ez nabaitzea.

EUSKERA AKADEMIKUA ETA... EUSKERA MINTZATUA

Oriek orrela, aspaldi ontan euskera salbatuko dan eufori edo ziurtasun aundienian bizi gera.

Eguneroko zonbeitek eta euskerazko astekariak, eten gabe xurikazten gaituzte: Euskalzaindiaren 50 urte dirala... batasuna dala... ikastolak, olerkiak eta liburu aunitz ditugula... Euskerazalleak ere badirala nunbeit or... Madrideko Minixtruari bixita egin zaiola... onek au eta ura erran duala... Minixtruaren argazkia agertzen digute ¡euskeraren salbatzalle bezala!...

Oiek eta beste aibeste, euskaldunak lozorrotzen gaituzten, izakera eta esakera aipatzen dizkigute.

Guk ez degu ukatzen euskera akademikuaren edo literarioaren alde zerbeit egin dala, euskera orraztu dala eta len baño arintasan eta egokitasun aundiagoarekin mintzo dala.

Baño euskera akademikuak ez gaitu interesatzen. Liburutegietan gordeko dan euskeratzaz futituzten gera. Salamankako Unibersidadean erakusten dan euskerak... oso urrutitik ikuitzen gaitu. ¡Zer ajola zaiku guri Salamankan eta mundu guziko Unibersidadetan euskera erakastia... ERRIAN GALTZEN BADA!

Bai, guk EUSKERA MINTZATUA erriaren ezpañetan nai degu gure artu-emanetan... lagunartian... gure lantokian... familian seme-alabekin... itz batian, gure BIZITZAN erabiliko degun izkuntzak interesatzen gaitu.

Orrek, eta orrek bakarrik interesatzen gaitu... gaurkoz.

Guk nahi deguna da, Erriak euskerarenaganako maitetasuna sendi dezala, arbasoengandik artu duan izkuntza EZPAÑETAN ERABILIAZ.

Ez dezagula entzun euskaldun lurretan, euskeraz ez dakian baten-gandik: «...No sé el vasco ni... falta que me hace»!!

Pierre Naert, Sueziko Unibersidade batian, Lunden, irakasle dagoan gizon jakintsuak esan digu: «...Lo urgente e importante es que el pueblo no pierda el uso vivo del vasco... No deben olvidar que si pierden al pueblo SE HA PERDIDO TODO».

Oso ederki esana.

Ori bera idatzi zuan, arrazoi aundiarekin Naparruako Diputaziuak egiten zuan lanari buruz, José Luis Banusek Donostiako «La Voz de España»: «...Lo importante, lo fundamental es el idioma vivo; que sigan hablando vascuence los hijos de los que hasta ahora lo hablan».

Ori da euskaldunak daukagun problemarik lehena, importanteena eta bearrena.

Eta zer ikusten degu Euskalerrian EUSKERA MINTZATUAREN alde ontatik...?

UNAMUNO'K ARRAZOI ZUAN...?

Naiz euskeraren alde orrenbeste lan egin izan... naiz Euskalzaindiak ¡¡50!! urte izan, beinere, berriz diogu BEINERE ez da orren guti euskera mintzatu, ez Naparruan eta ez Euskalerrri guzian.

Geiago oraindik, eta au da beldurgarriena eta Unamuno'ri bete-betian arrazoi ematen diona: EUSKERA DAKITENAK, beinere ez dute orren guti erabiliko bere bizitzako artuemanetan ¡¡BEINERE!!

Eta euskera dakitenak, eta jakin arren mintzatzan ez direnak. Ulzama'ko neskak baño askoz kalte aundiagua egiten diote euskerari. Ori da euskaldunak daramakigun eta sufritzen degun drama ikaragarria.

Orrek esanazitzen digu, euskera mintzatu ¡¡AZKEN ATSETAN!! dela.

«...Lo triste, lo inmensamente triste es que el vascuence desaparece del uso corriente», esan zuan J. J. M. «El Bidasoa» aldizkarian.

Eta entzun ondo beste egi garratz au: Gizon batek zenbat eta kultura geiago... orduan eta gutigo mintzo da euskeraz.

ELIZA ETA EUSKERA

Berexitasun bai egin behar degu kultura duten jendetan: APEZAK. Ezdakigu naparrak, baño bai gipuzkoarrak eta bizkaitarrak.


Elizak BI URTIAN euskera mintzatuaren alde lan geiago egin du, Euskalzaindiak 50 urtetan baño.

Ezdegu ahantzi bear, Elizak euskeraren alde lan egiten dualarik, bide batez, FEDEAREN alde egiten duala.

Ezdegu guk bakarrik esaten. Begira Narbaitz Bayona'ko kalonjeak esaten zuana Sarako Elizan, Axular zenari omenaldia egin ziotelarik:

«...eta orduan salbu ginuke eskuara, salbu ginuke eskualdun gogo eta —zertako ez aitor?— azkarrago ginuke ere fedea, ezen fedeari zimendu hauta dio ematen eskuarak, guri aiten aitek utzi eta eman mintzairak».

Bakoitzari bere, eta guk atsegin aundienarekin aitortzen degu Elizak euskeraren alde egiten duan lana.



Boseolariak

«Urtain» euskaldun boseolari famatua denen ahoetan dabilla. Orain arte sei borrokaldi ditu egiñak eta sei etan garaille agertu zaigu bere kontrarioak aisa menperaturik.

Irakurleek lerro hauek irakurri orduko, ain segur bertze borrokaldiren bat yokatu izanen du (1).

Eztakigu noraino iritxiko ote den baño eztago dudarik bere indar eta ahalmenak negurri gabekoak direla eta Europakoa ezpada Espaini'ko boseolarien Buru laister izanen dela, hortan seguru gaude.

Orain diotenez «Usategieta» aizkolaria eta arrijasotzale famatua ere boseoan asteko naikerietan omen dabilla, eta hau egia bada horrek ere zer bait eginen du indarra eta kemena etzaio faltako, eta «Urtain» ekin batean, Espainia eta munduko boseolarien arteko gudua inarrotziko dute.

Hoiiek guziek geroak erranen (esango).

ANZANARRI

(1) «Anzanarri»k igorritako idazlan hau artzean jakien gañean gaude Paris'en «Urtain»ek beste boseolari menderatu duela zazpi boseolari izanik «Jesus ameneko batean» garaitu dituen.

«Mendi mutillen» Billera

Bidasoz gora, Baztan'go sarreran arkitzen den ORONOZ'ko erri txukun ta politak, egun aundi ta gogoandarri bat zelebratu zuen Ilbeltza'ren irugarrean, MENDI MUTILLEN BILLERA zala-ta. «San Martin» Ikastetxea izan zan bestaren bil-toki.

Egun gutxi aurretik azaldu zan galdebidea (programa) ederra ta zabala zan. Ala ta guztiz ere, ongi ta egoki ta xehetasun aundiarekin eraman zan aurre-rra besta eder hura.

Orduak agintzen zuen bezela, eldu ziran Naparroko zenbait agintari ta izperlariak (periodistak). Ikastetxeko sarrera nagusienak oso ongi apainduak zeuden deneri ¡ONGI ETORRI! ta orrela agurtuaz. Iruña'ko Gotzaiak (Obispuak) esku luzatuaz mutil geienak agurtu zituen. ¡Goztaia'ren apaltasuna! Mikel Xabier Urmeneta Diputadu jaun-a ere ortxe zan don Pedro Maria Zabaltza Kalonjea ta Gotzaiaren Ordezkarri Berezia; don Arturo Begiristain, Naparroko erraldale edo emigranteen Jaunordekoa (Delegadua), izperlari ta abar.



Denok bildurik Ikastetxeko sala nagusian, mintzatu ziran agintari ta apaiz zenbait gure euskal mutillen ta gañerako emigranteen bizimoduari buruz. Urmeneta jaunak, bere sendimendu biotzkorrenaz esan ziran: «ez, geiago! agur! sorterriari; ez, geiago! agur! aita-amari; ez, geiago! agur! andregaiari...»

Gero, eguardiko amabiterdiak aldera jetxi ziran elizatzora. Arturo Tabera ta Araoz'tar Gotzai jaunak beste sei apaizekin bate-

ra eman zuen elkar-meza, euskeraz, alegia. Arrigarrizko gauza: Avila'ko seme den Iruña'ko Artxapezpikuak meza euskeraz ematen... Orrela egingo baluteke Euskalerrriko apaiz denek! Kastillar batek euskaldun askori ejenplua eman bear...

Mezaren ondotik bazkaria. Egoterik goxoena, antxe zegon noski... Bazkaria, apaiz jaunek zerbitzatu ziran mutil guzietan. Apaizak zerbitzatzan ikusi zituztenian, baten-batek esan ziran. «¡Kasu, motellak, oraintxe bizimodua merkatuko duk; apezak lanean asi dituk-ta...!» «Umore ederrean pasa zan. Uz-tapide ta Lasartek naiko irri egiñarazi ziran deneri. Au aski etzala ta bazkariak on geiago egin zezan, antxe ziran Etxeberria akordion-jotzallea ta Espaini'ko Txapelduna bera; Mikel Laboa ta Lertxundi kiter-jotzalleak ta Iruña'ko «Oberena» zortzikoteu.

Arratsaldeko lauterdiak aldera, pelota partidu eder bat jokatu zan, gero berriz, sala nagusira biurtzeko bertsoarien ta kitararien saioaldi luze bat entzuteko. Onetxein bukatu zan MENDI MUTILLEN besta eder ura.

GORTARI TA UGARTE'TAR YON

Aitor dezagun ere, bide batez-merezi baitu—, euskeraren arazo ontan napa batek egiten duan lan onuragarria: Donostia'ko Gotzai den Argaya Jaunak.

EUSKALZAINDIAREN FRAKASUA

Euskaldun eta euskaldunak ez diran izkuntzalle-filologuak, Euskalzaindia goratzeko, guk ukatzen ez ditugun arrazoi aunitz izan lezateke.

Baño euskera ERRIAREN EZPAÑETAN ikusi nai degunak ¡¡50 urte!! ondoren, gauzak dauden bezala ikusiaz, Euskalzaindiaren FRAKASO GOGORRA aitortu bearrian aurkitzen gera.

Orregatik, ezin genezake geiago lozorropean jarrai. Gauzak argi eta garbi esateko garaia etorri da. Eta esan, mingañian gorapillorikan gabe.

Il edo bizi, ez dago beste aukerarik. Beste aunitzek, bere arazoetan, euren autokritika egiten dute.

Egin dezagun guk ere gure AUTOKRITIKA. Euskeraren onerako izango da deritzaigu.

Baño norbeitek, guk ez bezala pentsatzen badu, ager ditzala or-tarako daukazan arrazoi bereziak.

«PRINCIPE DE VIANA» aldizkariak atsegiñez argitaratuko ditu, ziur gera.

Dr. HERNANDORENA